

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3464

697/2021 EBAZPENA, maiatzaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitara ematen da eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko pertsonal finko izendatzen direla, Fak. Esp. Obstetria eta Ginekologiako Medikari kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko EHAA 28. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 14ko 171/2018 Ebazpenaren bitartez, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Fak. Esp. Obstetria eta Ginekologiako Medikari kategorian estatutupeko pertsonal izateko hautaprobak deitu ziren, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik (2018ko martxoaren 5eko EHAA 45. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 17ko 129/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko agintzen da oposizioaldia gainditu duten txanda irekiko izangaien zerrenda, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa bananduta, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Fak. Esp. Obstetria eta Ginekologiako Medikari kategorian estatutupeko langile izateko hautaprobei dagokien puntuazioa, hain zuzen ere. Izangai horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango dute destinoa.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Fak. Esp. Obstetria eta Ginekologiako Medikari kategorian izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, zerrenda hori webgunean argitara dadin; eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAan argitaratzeko agintzea eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko pertsonal finko izendatzen direla, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Fak. Esp. Obstetria eta Ginekologiako Medikari kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusia (Egoitza Zentralean) hartu beharko da destinoaren jabetza; horretarako, hautagaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta ekitaldian dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– NANA, pasaporte edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar

Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko deklarazio bat edo hitzemande bat aurkeztu behar dute beste ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko eta, hala badagokio, hautagaia haren kontura edo kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikotan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzemande.

Espainiako nazionalitatea ez duten hautagaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzemande aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak, edo, agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko pertsonal gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesatuei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokien epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, dagokion izangaia lanpostuaz jabetzen bada, beharrezko eginbideak bete eta hurrengo egunean hasiko da lanean, osasun-zerbitzuaren barruan esleitu zaien erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2021eko ekainaren 17a, osteguna

ERANSKINA

2016-2017ko OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

DESTINOEN ESLEIPENA

KATEGORIA: FAK. ESP. OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO MEDIKUA

TXANDA: IREKIA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Derrigorrezko data	
***7097**	Martin Manso, Ana Maria	Barrualde-Galdakaoko ESla, Galdakao-Usansoloko Ospitalea	2HE	2017-12-03
***8309**	Arroyo Vivar, Miguel Angel	Debabarreneko ESla, Mendaroko Ospitalea	2HE	2015-12-28
***8861**	Garcia De La Maza, Cristina	Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***3809**	Fariñas Dovao, Aida	Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***6342**	Lizartza Ormaetxea, Olatz	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***9419**	Goyeneche Lasaga, Leire	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***7393**	Guerra Merino, Sandra	Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***3887**	Viguri Aguirre, Leire	Debabarreneko ESla, Mendaroko Ospitalea	2HE	
***4601**	Arriba Olivenza, Tania	Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***7387**	Silva Alonso, Judith	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***1468**	Andres Arribalzaga, Maider	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***7651**	Quilez Conde, Jose Cruz	Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***2931**	Martincorena Satrustegui, Leire	Uribeko ESla, Urdulizko Ospitalea	2HE	
***7061**	Eguiguren Dacal, Nekane	Barrualde-Galdakaoko ESla, Galdakao-Usansoloko Ospitalea	2HE	
***4179**	Martinez Gallardo, Laura Pilar	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***7935**	Canales Arrasate, Virginia	Uribeko ESla, Urdulizko Ospitalea	2HE	
***6267**	Dehesa Martinez, Tamara	Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	2HE	

2021eko ekainaren 17a, osteguna

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitu	Derrigorrezko data	
***7652**	Landin Larrazabal, Amaia	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***0240**	Leon Carvalho, Maria Eugenia	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***2111**	Ajuriagogeascoa Andrada, Saioa	Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***3632**	Del Valle Peña, David	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***1345**	Encinas Romero, Aida Maria	Uribeke ESla, Urdulizko Ospitalea	2HE	
***5072**	Alvarez Sala Torreano, Javier	Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***3055**	Sanchez Pascual, Maria	Barrualde-Galdakaoko ESla, Galdakao-Usansoloko Ospitalea	2HE	2017-12-03
***7633**	Urbietta Anza, Miren	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***3985**	Perez de Arrilucea Santos, Maialen	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***2254**	Azkuenaga Fernandez, Ainhoa	Uribeke ESla, Urdulizko Ospitalea	2HE	
***0022**	Arruti Muñoa, Ane	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***6552**	Esteban Garcia, Judit	Debabarreneko ESla, Mendaroko Ospitalea	2HE	
***0053**	Gregorio Alzua, Maria	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***7396**	Apellaniz Badiola, Oihana	Goierrri Urola Garaiko ESla, Zumarragako Ospitalea	2HE	2014-12-09
***7905**	Goiti Arce, Haizea	Uribeke ESla, Urdulizko Ospitalea	2HE	
***8886**	Escrich Lopez-Davalillo, Marta	Barrualde-Galdakaoko ESla, Galdakao-Usansoloko Ospitalea	2HE	
***2997**	Arambarri Beldarrain, Jon Iker	Uribeke ESla, Urdulizko Ospitalea	2HE	
***1816**	Quintana Ochoa de Alda, Eider	Uribeke ESla, Urdulizko Ospitalea	2HE	
***2795**	Goiri Little, Kostantze Estibalitz	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***6387**	Antolin Arellano, Nahia	Uribeke ESla, Urdulizko Ospitalea	2HE	

2021eko ekainaren 17a, osteguna

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Derrigorrezko data	
***1069**	Hernanz Lozon, Ana	Barrualde-Galdakaoko ESla, Galdakao-Usansoloko Ospitalea	2HE	
***3052**	Gartzia Beaskoetxea, Aloña	Goierrri Urola Garaiko ESla, Zumarragako Ospitalea	2HE	
***5939**	Lasa Alvarado, Izaskun	Bidasoko ESla, Bidasoako Ospitalea	2HE	
***6244**	Telleria Bereciartua, Irati	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***1439**	Otero Garcia Ramos, Borja	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***7398**	Vazquez Lerma, Iratxe	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***4235**	Olazabal Loyola, Maialen	Donostialdeko ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***1775**	Aregita Anitua, Ainhoa	Debagoieneko ESla, Debagoineko Ospitalea	2HE	2013-12-03
***7246**	Navarro Rojas, Miguel Edison	Debagoieneko ESla, Debagoineko Ospitalea	2HE	
***6766**	Santiago Garcia, Tamara	Debagoieneko ESla, Debagoineko Ospitalea	2HE	2013-12-03
***7137**	Martinez Zilloniz, Naroa	Bidasoko ESla, Bidasoako Ospitalea	2HE	